

Erref. kodea: LAF-220-192 [90]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Zaitegi, Jokin: [identifikatu gabeko lana filosofiaz]

leginak alegin, ^{eba} ~~izua~~ itzazue sasi ta elorri, ^{Zaitzue} ~~adar~~ eta abar, ^{maus} ken itzazue uste txar-
 rarak, egizue lan asmoz eta gogoz, ur-iturri ori txirrioan, ^{ea} agertzen danentz zuengan
 ere.

"Sendo-sendorik sinesten dut eriotza ostean badala zerbait, eta zerbait
 ori onentzat askoz ohea bear duela izan, gaiztoentzat baino" erasoten du Platon'ek
 Faidon'en asieran eta azkeneantsu.

Itzotan estalita ageri da ur-iturria. Begiztaldi utsez auxe ikusi zuen:
 on-gaitzak iraunkorrek dirala, alegia.

Emengo bizitzaldi ontan, gizadiarekikoetan iakitun edo ez-ikasi izan berdin-
 tsu zaigu geroari buruz. Ez, ordea, on edo gaizto izatea; ori ezin daiteke orobat izan,
 izan, inoiz ere, are gutxiago geroko geroan.

Ortxe dugu ur-iturria erabat.

Beragan eztaukanak ez beza lasterregi gaitzets Sokrate. *Er du ba kaitzak bere buruarekin bestearena neurtu bear, utzik egin oteran.*

Ortaz etsi-etsita zegoen; beraz, ez zan kako-makoetan ibili, ez zan iruzurtara
 etorri. Berak bazekien nondik-nora zebilen.

+ +
 + +

Azter dezagun aren eztabaida ta ikus ditzagun berak dakartzien agiriak.

Ioria, oparoa ta sakona dugu elkar-izketa au. Iru ataletan-edo sail dezakegu.

Ezilkortasuna egiztatzeko dakarren birroroitzapenak ez du kanorerik, ^{ex} ~~ex~~ funtsik,
 naiz-ta birroroitzapen ori onar ba'geneza ere: are gutxiago, onar ez ba'geneza.

Aitzikakoen deritzan bidez, auxe adierazten du: emengo dana erio-biziak omen
 darabilte. Gauak eguna, egunak gaua, aundiak txikia, txikiak aundia, luzeak laburra
 ta laburrak luzea dakartenez, biziak erio omen dakar, eta erio bizi. Nola ekar le-
 zake, ordea, bizidun berriak ilen gogoz osotuak izan ezik? Gainera, ilen gogoak bi-

zitara ez ba'letoz, beingoan bizia itzali egingo lizake lur zabalean. Onezkero, itxungia bear zukean, gogo berririk ezpaita sortzen. Baina, gogoak berriro bizi-tara ba'letoz, ez lirake soina uzterakoan ilko.

Orra ark adierazia, lahur-zur.

Estutela ulertzen diote.

Etzaie gogoko ikasleei, ezpaizatoz bat aren esanetara. Beren oztopoa ez da makala; Sokrate'k adieraziak gogoak aldiz-aurretik bizi zirala egiztatuko luke bururen buru, ez, ordea, geroko geroran bizi izango diranik.

Giza-gogo aurrez sortuak bizi izan ditezke nonbait, giza-soinekin bat egitekin begira ta aldiz-aldizka soineratu bearrak lirake. Beraz, Sokrate'k dakarren egia-bidea lur-iota datza.

Irriparrez erantzuten die Sokrate'k ikasleei. Aurtxoan antzeko omen dira-ta, beldur bide dira aizeek ez ote duten eraman goa, soinetik irten-ala. *Zertako dira itx-auzi sikh?*

Soina bizitan ezarten duen ezker, gogoak beragan dauka biziaren ideia. Gogo, beraz, ta biziaren ideia bat diran ezker, eriotzaren ideia erabat bazterre-razten omen du bein betiko.



